

...eta kitto!

745 zkia. 2010-XII-23

ASTEKARIA

TOKIKOM



GABONAK
**Negua
saso
argitsuena
bihurtzen
denean**

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



urte berri on!



IRAZABAL

clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk. – Tfnoa. 943 20 85 82

www.clinicairazabal.com – info@clinicairazabal.com



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maidier Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidier Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO IRUDIA:

Julen Zabaleta

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHTA:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

GURRUTXEL.- Elizetako hilobiak estaltzeko erabiltzen ziren mantei edo estalkiei hala esaten zitzairen 1790 urtean, Gregorio de Mugicak bere Monografian dioenez.

GUZTIRO.- Erabat, guztiz. "Guztiro jan dogu, mahaira atera dozun dana".

GUZUR-ANPOR.- Gezur galanta. "Haren guzur-anporrak sinistuko dittuanik...".

ESKUTITZAK

ESKERRAK EMATEN

Aurreko larunbatean, hilaren 18an, giro ezin hobean eman genion bukaera, Armeria Eskolan egindako bazkariarekin, urtean zehar ospatzen egon garen J.A. Mogel ikastolako 50. urteurrenari.

Asko izan zarete, martxoan hasiera eman genionetik eta hona, antolatutako ekintza desberdinetan zuen borondate ona, partaidetza, laguntza eta ekimena eskaini diguzuenok.

Garbi dugu, zuen eskuhartze hau gabe, aurkeztu-

tako agenda prestatzea eta aurrera eramatea ezinezkoa izango zitzaigula.

Beraz, horra hemendik gure eskerrik beroenak, erakunde, elkarte, komunikabide, partikular eta bereziki guraso eta ikasle ohiei, guztion bultzakadarekin, Ikastolaren mende erdi ahaztezina ospatzeko aukera eman diguzuelako. Mila esker.

**MOGEL ISASI, J.A. MOGEL IKASTOLA
ETA BIEN GURASO ELKARTEAK**

AZKEN ORDUKO BERRIA

LOTERIAREN SARI POTOLOA EIBARREN SALDU DA

ATZO INPRENTARA JOAN AURRETIK JASOTAKO AZKEN BERRIAREN ARABERA, Gabonetako loteriaren zozketak gure herrian hiru milioi euro laga zituen, aurtengo sari nagusia izan den 79.250 zenbakiaren serie oso bat gurean saldu dute-eta: Calbeton kalean dagoen 3. Administrazioak banatu du "Gordoa" eta administrazioiko Edurne Lete-k zoriotzera deitu zuen baten ahotik jaso zuen berri pozgarria, Madrilgo zozketan zenbakia irten eta berehala deitzen hasi zirenean. Administrazioak 20 urte dauzka eta sari nagusia saltzen duten lehen aldia izan da. Hala ere, orain dela 11 bat urte beste sari potolo bat banatu zuten, "sariak pezetatan ematen zirenean".

asteka

HEMEROTEKA

esaldia

"Parkinsona duela onartzen duenak borrokaren erdia irabazita dauka. Estatistiken arabera, 2025erako bi-koiztu egingo da gaixotasuna duten lagunen kopurua. Orain 40 urte AEBetan sortutako botika bera da gaur egun erabiltzen dena eta emaitza hoberenak dituen; Gipuzkoan, dena dela, neurologo oso talde ona dugu eta ikerkuntzan asko inbertitzen da"

(Carmen Olazabal, Aspargiko lehendakaria)

"Arabiarren %80aren arabera, Israel da Ekialde Hurbileko mehatxu nagusia; eta bigarren mehatxua, AEBak. Iran arabiarren %10ak baino ez du aipatzen. Arma nuklearrei dagokienez, gehiengo handi samar batek uste du Iranek arma nuklearrak izanez gero, Ekialde Hurbila hobeto egongo litzatekeela. AEBetako eta Israelgo agintariak inoiz ez dute hori onartuko"

(Noam Chomsky, hizkuntzalaria eta filosofoa)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

...eta Euskara E Gabon KATAI

KATEA:
10,60 euro

ZINTZILIKARIOA:
16,50 euro

SOKADUN
ESKUMUTURREKOA:
7,50 euro

KAUTXOZKO
ESKUMUTURREKOA:
37,75 euro

KATEA:
10,60 euro

ZINTZILIKARIOA:
30 euro

BELARRITAKOAK:
25 euro

KAMISETA BERTSOLARI BELTZA (MUTILA):
19 euro

KAMISETA BERTSOLARI LILA ETA BELTZA (NESKA):
22 euro

KAMISETA BERTSOLARI MOREA (MUTILA):
19 euro

AMANTALA (LAUKIAK):
T: 1, 2, 3, 4
32 euro

AMANTALA (OTSOA):
T: 1, 2, 3, 4
29,50 euro

ARGAZKI MARKOA:
8 euro

ARGAZKI MARKO HIRUKOITZA:
12 euro

ARGAZKI ALBUMA: 12 euro

HELBIDE-LIBURUA:
8 euro

OHARRAK:
8 euro

Etorri oparien zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...eta kitto! Euskara Elkart
URTARRILAK 3: Eskerak egiteko azken eguna Orduategia:

IKUSI, AUKERATU eta ENKATU

kitto! Elkartearen metako KATALOGOA

Katalogoak dituen
irabaziak euskera
sustatzeko erabiliko
ditugu

HAUTSONTZIA:

6 euro

BURDINEZKO

MAHAI

GAINEKOA:

11,75 euro

TIRAGOMA:

3 euro

KARRAKA:

4,30 euro

KATILUA:

7,10 euro



ARBOLARAKO
OLENTZERO:

4 euro



ERRETXINAZKO ONGI ETORRI:

6 euro





ATERAKO ALFONBRA: 12 euro

Elkartearen bulegoan (Urkizu, 11)

10.00-13.00 / 16.00-20.00

ARGUA EGIN!

DISKA ETA DVDAK



Euskara Elkarte



asteko
31.000
datua

euro baiño gehixago zor detsez Udalari telefonia mugikorretako enpresak: Euskaltel-ek 3.689, France Telecom-ek 2.085, Telefónica Móviles-ek 15.270 eta Vodafone-k 10.683 euroko zorra dake, lurzorua erabilleriarengaitik pagau bihar daben ala ez epailiak erabagi bittartian.

a u t u a n

MUEBLIAK JASOTZEKO ZERBITZUA

Debabarrenako Mankomunidadeiak altzarixak, etxeko tresna eta bestelako traste zaharrak jasotzeko zerbitzu berezixa dakala gogorarazi nahi detse herritareri. Modu guztietako muebliak jasotzen dittue, mugitzeko baliabide mekanikuak bihar dittuenak izan ezik. Zerbitzua erabilli nahi dabenak Mankomunidadeira deittu biharko dau (943700200 telefono zenbakira), 09.00etatik 14.00etara. Muebliak jasotzera, barriz, astelehenetan pasatzen dira, 20.30xetatik 21.30xetara.

ERRESKATE-ITXURA

Domekan, 10.00ak aldera Ertzantzaren erreskate-taldekuak pare bat salbamenturen plantak egingo dittue Asua Erreka inguruan, euren ohiko martxiari jarraituta. Gaur egunian Elorrixon daka egoitza larrialdixetan salbamenduak egitten dittuan taldia.

Etxebizitzaren aldeko itun soziala

DEBEGESA DEBABARRENEKO GARAPEN EKONOMIKORAKO ELKARTEAK ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALA siñatu eban astelehenian, Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburua buru izan eban ekitaldixan. Juan Angel Balbás Debegesa-ko zuzendarixak siñatutakuari esker, Debegesak bat egin dau aurretik itunarekin bat eginda eguazen 75 erakunde sozial, ekonomiko eta finantzieruekin. Lehelengo aldiz lortu da EAE-n horrelako izaeria dakan hitzarmena eta 15 urterako iraupena aurreikusit detse.

Etxebizitzaren aldeko itun sozialaren ardatz estrategikuak



Iñaki Arriola eta Juan Angel Balbás siñadura ekitaldixan.

etxebizitza eta eraikiñen zahar-berritza, hiri-gunien birsortza eta alokairua indartzia dira. Helburua, gaiñera, 90.000 famelixen etxebizitza-premiñeri erantzuna emotia eta alokairuzko

etxebizitza-kopurua haunditza da; ildo horretan, 2013an alokairuan emoteko sustatuko diran etxebizitzen kopurua %40ra ailegatza eta 2025erako %50a lortzia billatzen dabe.

Sandra eta Belinda garaille “Pekin-Express”-en

BALIN (INDONESIA) JOKATU ZAN “PEKIN EXPRESS. LA RUTA DEL DRAGÓN” lehiaketako final haundixa, azken txanparaiño ailegatza lortu eben bikote biren artian eta bertan nagusittu ziran Sandra eta Belinda ahizta eibartarrak. 20 orduko iraupena euki eban gymkhanan hamaika oztoporri aurre egiñ eta aurkarixak kanporatu ondoren, 45.000 euroko sari potolua eibartarrendako izan da. Cuatro telebista kanaleko saiuan lehiatzen jardun daben bikote guztiak proba gogorak gainditu bihar izan dittue lehiaketan aurrea segidu ahal izateko. Bestiak beste, 45 egune-



tan 5 herrialde ziharkatu dittue lehiaketan parte hartu dabenak eta, finalera ailegau aurretik, ahizta eibartarrak 8 bikote kanporatu bihar izan dittue. Zorionak!

EB eta Aralar ez dagoz presupuestuarekin conforme

MARTITZENIAN EMONDAKO PRENTSAURREKUAN, EZKER BATUA-BERDEAK ALDERDIKO ELI GÓMEZEK udal aurrekontuaren borradoriari egindako zuzenketa barri emon eban. Osotasunari zuzenketa egittiaz aparte, beste bost zuzenketa presentau dittue, “borradorian sartutako partidak ikusitta, inbersiñuetan guretako



Eurendako inportantiak diran kontuñeri lehentasunik emon ez izana salatu dau EB-k. / SILBIA HERNANDEZ

inportantiak diran kontuñeri ez detselako lehentasunik emoten. Bestiak beste, drogekin arazuak dittuenen famelixendako laguntzak %50, enplegua sustatzeko programeri bideratutakuak ixa %75 eta ongizatiarekin zein kulturarekin lotutako beste hainbat partida bajauko dira eta, euren alderdixari bultzadia emotia beste helbururik ez daken propaganda eta publizidade kontuetarako 150.000 euroko partidia eskindu nahi detse. Gabonetako postaletan 60.000 euro gastatza ez da soiltasuna erakusteko modurik egokixena”. Bestalde, Aralar alderdikuak atzo bertan emon eben aditzera eurak be osotasunari zuzenketa presentauko detsela, borradoriak jasotzen dittuan hainbat konturekin ados ez dagozelako. Gobernu-taldiak egindako borradoriaren arabera, 2011. urterako presupuestua 31.789.325,11 eurokua izango da eta inbersiñuetarako 4.334.939 euro erabilliko lirakez.

Sekulako girua ikastolakuen bazkarixan

ZAPATUAN ARMERIXA ESKOLAKO FRONTOIAN EGIN ZAN JUAN ANTONIO MOGEL IKASTOLAKO 50. URTEURRENEKO bazkarixarekin agurtu eben mende erdixa bete dabela ospatzeko hainbat hillebetian garatzen jua dan programaziñua. Bazkarixan parte hartu ebenak eurak kontauta, "bazkarixan sekulako girua egon zan, nik uste argazkixetan be nabari dala. Zuzendarixak ongiatorrixa emon eta, ikastolan ibillittako guztiak euskeriaren alde egindako biharra eskertu ostian, on egitteko esan eta bazkaltzen hasi giñan. Kalian sekulako hotza eginda be, Armerixa Eskolan batutakuak segiduan berotu genduan



girua. Horretan Jainagak asko lagundu eban: joten hasi eta kantuan ipiñi gintuan.

Hasieran lotsia nagusi zan, baiña gero... batzuk kostata bajau ziran taublautik! Anderereñuak, "andriak" (eurak jaso zittuen txalo gehixen), Urkizukuak "a capella" Urkuzuko itturrixa kantatzen, beste batzuk Sagarnari ikasittako "txena, txena" abestixa kantau eben... eta dantza be gustora egin genduan. Horrekin batera, oholtzaren beheko partian eguan pankartiak euki eban arrakasta gehixen, hor etara genduzelako taldekako egin genduazen erretratuetako asko". Zazpirak jota, famelixako erretratu haundi bat etarata agurtu eben 200 bat lagun alkartzia lortu eban ekitaldixa.



Legalizaziñuaren alde giza-katia egiñ eben zapatu eguardixan

ZAPATU EGUARDIXAN, "ORAIN LEGALIZAZIOA. GORA EZKER ABERTZALEA!" LELUARI JARRAITTUTA egindako deialdixarekin bat eginda, beste herri batzuetan egindakuaren harittik Eibarren be giza-kate bat osatu eben hainbat herritarrek, ezker abertzalia legalizatzeke eskatzen.

Gipuzkua, Bizkaia, Araba eta Nafarroako hainbat herritan egin zan gauza bera, gizartia aktibatzeke ezker abertzaliak egitten diharduen lanarekin bat. Guztira, 109 mobilizaziño izan ziran zapatuan egindakuak, hurrengo egunian (domekan) asmo berarekin beste hamar egin ziran bittartian.



...eta kitto!-ko otarra eruan dau irabazliak

ARGAZKIXAN POZARREN IKUSTEN DOZUEN MARTIN RODRÍGUEZ URRETXUARRAK eruan dau ...eta kitto! Euskara Elkartearen aurtengo gabonetako otarra, aurreko astian egindako zozketan sarixa eruateko etera eben 1.727 zenbakixa berak zekan eta. Astelehen arratsaldian etorri zan ...eta kitto! Euskara Elkarteko bulegora, produktu goxekin betetako otarra jasotzera, baiña sarixa etxera eruan aurretik irrifartsu erakutsi zetsan kamariari zenbaki irabazlia dakan loterixa-partizipaziñua. Zorionak eta on egin!



Giza-katiak herriko kaliak ziharkatu zittuan. / MAIALEN BELAUSTEGI

Nun eta zelan amaittuko dozu urtia?



NIDIA SANTOS
39 urte
garbitzaillia

Etxian egongo gara, famelixarekin. Holan pasatzen dot beti, famelixa eta lagunekin, eta asko gustatzen jata une hori. Gaiñera, holan izan bihar dala uste dot. Etxetik urten barik, musikia ipiñi eta abestu eta dantzan egitten dogu.



CESAR GORJÓN
30 urte
makinistia

Etxian afalduko dot, famelixarekin. Gustatzen jata etxekuekin afaltzia. Baiña baita gero kalera urten eta parranda egittia be. Beti egitten dot gauza bera: lehelen go famelixarekin eta gero parrandia. Kotilloietan, esaterako, ez naiz iñoiz egon.

IZARO GARITAGOITIA
37 urte
zaintzaillia/jostuna

Etxian egongo gara; beti ospatu izan dogu etxian. Ahal izango baneu, iñork ezagutuko ez ninduan lekuren batera juango nintzake, epeletara. Caribera edo Australiara juatia gustauko litxakit; ondo egongo zan.



PEDRO ARISTONDO
73 urte
jubilaua

Betiko moduan, etxian, famelixan. Seme-alabekin pasatzia gustatzen jata; ni ez naiz hortik zihar urtetzekua, oporretara. Badago jendia oporretan juaten dana; baiña, halakuetan gastau ezkeru, dirua gero beste gauza batzuetarako ez dago.



ZORIONAK

GIKOLA
Carnicería y Pestañería

Urkizu, 18 — 943 120194

MUGIKA

EGOITZA NAGUSIA
Bilbobarrieta 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errausketa laber
Egokibonari (Signo poligonari).
Partikular, multzo eta aseguru enbasi zorbitzuzki
Koroak - Eskelak - Urteuneko eskelak
Eskel Hesi azoko ospitaleetan hartzen zaizkigu
Nazio eta Nazioarteko trajoizki

Mugica Ehorzketa
Ehorzketa laber


TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

GABON


ZURE

EROSKETAK GASTEIZEN

PARKINGETAN EGOKALDIAS DOHAINIK



EROSKETETAN KALEKO GIRONA



ZINEMA, PARKING, IZOTZ PISTA, PUZGARRIAK EROSTEN DUZUN BAKOTZEAN

INFORMAZIO PUNTUA ETA GORDELEKUA ARCA KALEAN



ADIDASUNEZKO EURITAKOAK



DIBERTSIOA GUZTIONTZAT!



ANTOLATZAILEA:



BADELEA:



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Jaixen giruan, txikixenen ilusiñua nagusi

Gabonak gero eta lehenago ailegutzen jakuz azken aldixan. Kaleko argiak be ipiñitta eguazen gure kalietan sanandresetarako -orduak piztu baziran be lehelengoz-. Eta aste honetan oporrak hartu dittue askok, bai eskoletan eta baitta biharrian be. Ordu mordua izango dittugu hamendik aurrera aisialdi horrekin disfrutatzeke eta baitta aukerak be: herriko dendarixen alkartiak ahalegin berezixa egin dau bezerueri aukerak eskintzeke eta Artisauen Azokakuak bide berari eutsi detse. Guai parkiak be ez dau kale egingo eta, urtero lez, Olentzero eta Errege Maguak txikixen nahixak betetzen ahaleginduko dira. Ondo pasau eta aprobeixau!

Artisau Azokia

Bosgarren urtia da, jarraixan, Artisau Azokak bere atiak zabaltzen dittuala ohiko tokixan, hau da, Eibarko Bizikleta plazan. Oinguan be oparixak aukeratzeko erraztasuna eta erosotasuna eskintzen dabe 15x20 metroko karpan: kalefakziñua dozu, lurra enmoke-tautu eta musikia lagun dozula. Aurreko barixakuan inaugurau eben, piskolabixa eta herriko musikarixen aktuaziñuekin eta eneruaren 5era arte zabalik egongo da, goizeko 11.00etatik 14.00etara eta arratsaldeko 17.00etatik 21.00etarako ordu-tegixarekin. Hori bai, abenduaren 25ian eta eneruaren 1ian itxitta egongo da.

Bertan aurkittuko dozuen generuaren eta artisten aurtengo selekziñua honakuak osatzen dabe, eurretatik asko Eibarkuak: Eibart alkartekuak dira Maite Arriaga (pintura lanak), Eskulan (kristala), Marta Irusta (zillarra), Lorena eta Junkal (pintatutako gerrikuak), Nieves Maidagan (hadatxuak), Ione Martínez (pintatutako erropak, helduentzako), Ana Orozko (bitxixak), Jone Perales (bitxixak), Iratxe Unanue (pintatutako erropak, baiña umientzat) eta Puritito Erdi (burdiña). Eurekin dagoz karpan Arpanor palentziarrak (zeramikia), Clota (txotxongilluak eta duendiak), Garbi Zegamatik

(aroma-terapia, jaboia, olixua eta gatza), Karol Madrildik (zeramikia), Menoska Zarautzetik (restauraziñua) eta Milagros Pérez elgoibartarra (jostailuak).

V. Artisau Azokian antolau daben programaziñuaren barruan, gaur bertan, 20.00ak al-dian, "Kaleetan Kantuz"-ekuak bertan kantauko dabe. Taillar bi izango dira: lehelengua domekan, hillaren 26xan, eta bigarrena 30ian, bixak be arratsaldeko 17.00etatik aurrera. Datorren martitzenian, hillaren 28xan, rap ikuskizuna eskinduko dau Nerea Lodosa Kiroldegiko irakasliak; eta eneruaren 2xan Nerea Ariznabarreta ipuin kontalarixa izango da. Gauza barrixen artian, Azokian erosten dabenen artian rifak banatuko dira eta zozketia egingo: Urzainkin, Izaban, dagan Argoniz Etxea nekazal-etxian as-



Barrakak Txaltxa-Zelai, anbulatorixoko parkian eta Urkizun dagoz. / MAIALEN BELAUSTEGI



Herrixan dagozen jaiotzen artian, Zeramika Eskolakua berezixa da. / SILBIA HERNANDEZ

teburu-pasa eta azokako produktuekin osatutako otarra banatuko dira.




Eibarko Dendarixak

Eibar Merkataritza Gune Irekixak Gabonetako Ferixia osatu dau aurten be, atrakziñuak ipiñitta Txantxa-Zelaixan, An-

bulatorixoko parkian eta Urkizun. Aurreko urtietan kanpaiñak izan daben arrakastia ikusitta, oinguan atrakziñuen numerua igo da eta baitta disfrutatzeke egunena be. Txaltxa-Zelaixan atrakziñuak (bost dagoz guztira) hillaren 18ttik funtzionatzen dabe eta eneruaren 9ra arte egongo dira. Kalendario berbera daka anbulatorixoko guniak eta hor karrusela dago txikixenendako. Urkizuko zonaldixan, ferixia Urkusuko iturrixaren onduan kokatuko da: gaur hasi eta eneruaren 4ra arte egongo da martxan -kenduta abenduaren 29xa, merkadillo eguna da-eta- eta lau atrakziño izango dittu. Atrakziño guztien artian, igaz "Mega Xtrem" izenekua izan zan arrakasta gehixen lortu ebana eta aurten be hor dago, Txaltxa-Zelaixan (euro eta erdi biagia).

Eibar Merkataritza Gune Irekiko partaidiak diran establezimendu guztietan (200 bat inguru) aittatutako atrakziñuetan erabiltzeke banatuko diran bonuena da aurtengo nobedadietako bat. 100.000 banatuko dittue dendok euren bezeruen artian, atrakziñuetaz duan disfrutatzeke aukeria eskinduz. Atrakziñuen prezixua euro batakua izango da bonuak erabilli leikezen egunetan (bonuarekin duan, jakiña) eta beste guztietan euro eta erdikua.



Hamasei artisau dagoz Eibarko Bizikleta plazako karpan. / MAIALEN BELAUSTEGI


38.000 euro inguruko aurrekontua daka Merkataritza Gune Irekixak aurtengo kanpaiñarako. Kantidade horretako zati bat Eusko Jaurlaritzako Barrikuntza, Industria, Merkataritza eta Turismo sailak ordaintzen dau eta Udalak, bestalde, lurra lagatzen detse. Kalian dittugu hainbat egunetan funtzionatzen diharduten Gabonetako argixak be -sanandresetan piztu ziran lehelengoz- eta hor 57.000 euro gastau dira: 42.000 Udalak ipiñi dittu eta beste 15.000 Gune Irekixak. Argizko 120 motibo dagoz gure "erdiko" kalietan, batez be, erdittik zenbat eta urrunago argi gero eta apalaguekin.

Bestalde, Errebal merkatu plazan be aurreko hillabetietan baiño zozketa gehixago egingo dittue hillabete honetan: 25 euroko 48 erosketa-txeke eta 500 euroko beste bi zozketauko dira; azken zozketia hillaren amaierian egingo da.

Guai parkia

Guai parkia hasteko be gitxi falta da eta, hillaren 26ttik aurrera -hau da, domekatik- ohiko

tokixan izango dogu, Armerixa Eskolan. Noiz arte? Hillaren 31 izango da azken eguna. Hamen be bada barritasunik eta Planetarium bat izango da, herriko gaztieneri biaje ikusgarrixa eskinduko detsena gure unibersua hobeto ezagutzeko aukeriarekin. Lau metroko diamentrua dakan kupulia instalauko da, hiru dimensiñotan jarraitu leikiena, 500 izar eta planetekin. Dana dala, badagoz beste gauza batzuk be parkian: Planetariuma hartuko dabena atrakziñuen zonaldia dago, baita parke permanentia be (2 eta 12 urtien arteko umientzat), zer




Guai domekan zabalduko dittu bere atiak Armerixa eskolan, 31n ixteko. / ARTXIBOA

esanik ez taillarrena -hor irrati- xa, reposterixia, makillajia, eskulanak, edukaziño biala... landuko dira-. Egunero, bestalde, "Eibar ezagutzen" galderen lehiaketia jokatuko da.

Guairen ordutegixa honakua izango da: goizez, 11.00etatik 13.30xetara; eta arratsaldetan, 16.00etatik 20.00ak arte. Gabon Zahar egunian ordubete lehenago itxiko da. Prezixua 3'5 eurokua izango da. Guai egun gitxiago izango dittu aurtten, "beste gauza batzuk be antolau diralako herrixan" udaletik esan dabenez. Holan, Coliseuan, eta bakarrik hiru euro ordainduta, hainbat pelikula ikusi ahal izango dira: UP-3D, Lluvia de Albóndigas, La Edad de Helio 3, El origen de los Dinosaurios eta Cómo entrenar a tu dragón. Armen Museuan, bestalde, 29xan umiendako antzerkixa izango da ikusgai.

Olentzero eta Erregiak

Badira beste ekitaldi batzuk be euren indarra dakenak gure artian. Holan, Olentzero bixar etorriko da gure herrira eta



Olentzerok gutun morduua jaso dittu honezkeru. / ARTXIBOA

17.00etan oparixak banatuko dittu udaletxian aurretik eskutitzak bialdu detsenen artian. Jarraxan, eta urterokuari jarraituta, kalejiria egingo dau, 18.etatik aurrera; Pantxika astua, Kaleetan Kantuzeko korua eta J.B. Gisasola Musika Eskolako soiño ikasliak eta trikitilariak lagun izango dittu kalejira horretan. Kalejiria amaittuta, Olentzerok azken gutunak jasoko dittu udaletxian.

Errege Maguak be kalez-kale ibilliko dira, honek 2011n izango badira be. Eneruaren 5ian 19.00etan hasiko da euren kalejiria eta, aurretik, Ipurua kirodegiko dantza taldiak aktuaziñua izango dau Asteleena frontoian. Errege Maguen kabalgatian Eibarko Musika Bandak be hartuko dau parte eta Untzagan amaittuko da; horren ondoren be, Erregiak azken gutunak jasoko dittue udaletxian.

ITURRI
ARDOAK
ETNERA FRAMATEN DUGI
Eibarko Merkatu Plaza - Rialto
Tel. 943 12 05 87

OINETAKO KONPONKETA
AZKARRA
Don Takón
merkeena
deskontuekin
BAITA...
Giltzen kopia
Konponketak
(potsa, garriko...)
Larruzko artikuluen
salmenta
639-236-774
Ibarkurutze, 7 - behea

Metalik bortitzenetik rockik egoskorrenera GITARRÉN GUDAN

Finala gero eta gertuago, barixakuan finalaurreko emanaldia izan genuen Dark Code, The Kubers eta Asfiksia taldeekin. Nobedade gutxi, metalik bortitzenetik, rockik egoskorrenera, gitarra gihartsuak izan ohi ziren jaun eta jabe Espaloian. Guda ostera, barixakukoan, biren artekoa izan zen: Dark Code, infernutik bertatik letaginak erakutsiz, versus Asfiksia, temati, irmo eta jarrera handiarekin, amorruez aurre egiten. Tartean The Kubersekoak

izan genituen, emakume ahots bikainarekin, baina gudaren erdi erdian, hori bai.

Dark Code, oineztuak

Begararren dunbal bikoitzak gerturatu gintuen infernuko atetara gitarren trumoi eta leize ilunetik, ahots dardara-eragileak. Eta zaleak, lehen lerroan pilotuta, lehen unetik elkarri bulzaka, tximak astinduta eta izerdia botatzen ibili ziren. Bejon degiela! Amesgaietoetako ez-tandak atsedenerako une gutxi



Asfiksiak asko edan du Su ta Gar-etik.



The Kubers-ek etxafuegoekin amaitu zuen bere emanaldia.

izan zituen. Momentu melodiko hunkiberagoekin eta punteo luzeekin baretu zuten apur bat zilindroa, baina ez larregi. Gazte-toxak izanik ere, metalik zorrotzenak laztutako nerbioa ekarri zuten. Eta, ikusleek saririk balute, Dark Codekoen lagunei txapel guztiak, ze borroka koreografiatuak eta guzti eskaini zituzten taldekoek.

The Kubers, atsegin

Lan nekeza izan zen Kubers-ekoentzat aurrekoek askaturiko deabru guztiak antzokitik bidualtzea. Monicaren ahotsa izan zen exorzitzailea hein handi batean, goxotasunez, hasieran, indarra neurtuz, hazten joateko gero. Pop-rockak berak eraman zaitzakeen biderik ezagun eta bisitatuenetatik dabilta, halere, hauek. Nirvana, Muse edota The Strawberries aipatzen dituzte gustukoaren artean, baina hauen bidea lauagoa begitandu zitzaigun. Monikak du taldean

ostu ezin zaien protagonismoa eta, akustikoarekin bakarrik, aretoaz jabetu zenean garbi geratu zen hori. Baina, esan moduan, taldeak osotasunean aitzakia gutxi du eta beroketa lanak bikain eginda etorri ziren Espaloira. Amaieran bai ezustekoa: etxafuegoekin. Bitxia.

Asfiksia, amorrugartsua

Berehala etorri zitzaizkigun gogora euskal metalaren label-dun talderik ezagunenak, ahotsa bai eta planteamendua ere bai. Deigarria, baina, bateriaren tinkotasun zeharo fisikoa, zakarra sarri. Bestela, espero bezalako deskarga sekulakoa, Dark Codekoendako gerra deklarazio garbia. Hauek melodia dute aldeko; eta gitarra zorrotz zorrotzak. Grina, amorrua eta indarra. Hor irabazi dute, Latzen eta Su ta Gar taldeetatik asko edanda, itotzeko adina. Gazte, baina ideia argiekin eta bide luzea egiteko.

BARESLE NAGUSIA



kutxa
gazte

LAGINTZAILIA



m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

HEGARIKIDE LAGINTZAILIA



ANTOLATZAILIA






DANBAKA
www.danbaka.com

Xarma, Lord Witch eta Desprezio izango dira urtarrilaren 14ko Danbabako finalean

Finalak garbi lagako du Danbakan rockak, metalak eta punkak balio duela. Estiloari izandako fidelitasunak eta jarrerak eroan ditu taldeak finalera. Oso talde diferenteak dira hirurak eta berriz ere ezinezkoa izango da konparazioak egitea. Baikoitzak berean, estiloan onenak balira bezala jardun beharko dute. Lord Witchekoek teknika zanpatzaile eta zuzeneko deuseztatzailea dute. Xarmakoek presentzia eta kantua onak, txapeldunen ikur izan ohi dena, eta Despreziokoek, dagoeneko erabat higatutako estiloa defendatzera etorrira ere, punkaren garrantzitsuena berreskuratu dute: jarrera. Xarma, Lord Witch eta Desprezio taldeak finalean egoteko arrazoi hauek azaldu dituzte epaimahaiko kideek.

DESPREZIO

Jarrera. Egiten duten horretan sinisten dute eta mezua heltzen da, komunikatzen dute. Nahiz eta teknikoki oso onak ez izan, egiten dutena egiten duten moduan egiteak handiagoak egiten ditu. **Freskotasuna.** Horixe daukate eta kontzertu dibertigarriak egiten dituzte. Ditutzen baliabide gutxiekien moldatzen dira bestelakorik behar gabe. Nahi dutena egiten dute, gustatzen zaiena. **'Do it yourself'.** Bada ordua XXI. mendean Do It Yourself edo 'egizu zuk zeuk' errebindikatzeko. Naturaltasun handia dute.




Koherenteak dira. Punka oraindik bizirik egotea poztekoa da.

XARMA

Jarrera soberan. Guztia kontra izan zuten, ehunka arazo tekniko, eta oztopo horiek guztiak erraztasunez eta soltuz gainditu zituzten, animu handiz eta emanaldia bertan behera utzi gabe, ezertan eragin



gabe. **Dena.** Guzak ondo egiten dakite eta ondo pasatzen dute. Guztia ematen dute. Teknikoki oso ondo. **Mezua daukate.** Kantu onak dituzte, garapen eta aldaketa nabariek. Asko transmititzen dute. Indarra daukate. Presentzia eszeniko indartsua. Benetan xarma daukate.



LORD WITCH

Sinetsiak. Erabat sinisten dute egiten dutena eta hala bizi dute. Horregatik, asko transmititzen dute, ikusle-entzuleari heltzen zaio egiten dutena. **Estiloa muturreraino.** Euren estiloa, heavya, muturreraino defendatzen dute. Koherenteak dira. Birtuosoak dira, oso ondo jotzen dute. **Taldea.** Taldea dira, oso konpenetratuta daude. Taularatze oso zaindua, detaileak asko zainduta. Zuzenean asko irabazten dute eta ikuskizuna ematen dute, ikuskizuna dira.

SOMOS AGESORES

NAHIXAN taldearen
AZKEN DISKOAREN
3 ALEREN zozketako
IRABAZLEAK

- UGAITZ MUÑOZA
- LOREA JAINAGA
- ANARTZ MITXELENA

Diskoa jasotzera
...eta kito!-tik pasatu

publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

KATU

KALE

BIDEBARRIETA, 1 **TABERNA**

GREMIOEN

GIDA

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12

ANTENAK

BALATZ C.A.
SAT, TVC, Bideoa
Bidebarrieta 37 Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com

trinmer

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 55 55

Aroztegia Ebanisteria
 Obra aroztegia

C **N**

Egiturak, barruko eta kanpoko ateak, armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak, eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

SUKALDE ALTZARIAK

AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

AROTZAK

ulmar
S.L.

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOAK
INDUSTRIA ARMTEHUR
PROIEKTUAK
BERRI FORNIAK

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

ELECTRICIDAD
ETA B.S.L.

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 647 90 66 20 / 607 71 38 73

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaiak eta
proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioa
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

• Barne apainketak
• Mantenimendu
eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

ERREFORMAK

ESTUDIOS
ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ARRAGUETA 12 -Eibar- ROSARIO 15 -Elgoibar-
Tel. 943 20 06 98 Tel. 943 74 40 19

GARBIKETAK

escudero

INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

CRISTALUX

Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

crystaluxbe@gmail.com
Tfnoa. eta Faxa:
943 20 65 08
Mobila:
659 58 35 32

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superfizie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171 Barrena, 26 - 6. C

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta mantenimendua

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK



IRAIZABAL
SOLUCIONES INDUSTRIALES, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}

eta faxa: 943 20 39 03



MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396



Pintura
Goi mailako
dekorazioa

Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

PINTURAK



AIXA

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

SARRAILAGINTZA

ITURGINTZA



INDA iturgintza

UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxa: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63

Asua-Erreka, 2



PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako ateak eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANS GROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



Pinturas
Elias e Hijo, S.L.

pintura eta estaldura
mota guztiak

BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97

Areto-foballekoen lagunarteko partidua hilaren 30ean

LEHEN MAILA NAZIONALEKO CONCEPTO CREATECH TALDEAK IBARRAKO LAUBURUREN AURKA jokatu du datorren eguenean Ipurua kiroldegian, arratsaldeko 20.00-etan hasiko den lagunarteko partiduan. Lauburu Gipuzkoako gaur egungo talderik indartsuena da. Atsedendian, Eibarko taldeen kadete eta infantil mailako jokalarien arteko partidua txoia jokatu da.

Debabarrenako hiru taldeek, bestalde, asteburu ona izan zuten: talde nagusienak 2-3 irabazi zuen Urnietan, Makax azken sailkatuaren kantxan; infantiletan launa berdindu zuen etxean, Erainen aurka; eta kadeteetan 7-1 nagusitu ziren Eibarkoak, Eskolapioak egurtuz.


letako jokalarien arteko partidua txoia jokatu da.



Eibar Triatloi Taldeko ordezkariak denboraldi amaierako Galan

DONOSTIAKO ARAETA JATETXEAN ZAPATUAN EGINDAKO EUSKAL HERRIKO TRIATLOIAREN I. Galan, sariak banatu zaizkie triatloi eta duatloi zirkuitoetan garaipenak lortu dituzten guztiei. Han izan ziren gure herriko triatloi taldearen ordezkari bi ere, biak ere 2. postuan sailkatuta euren mailatan: Roberto Gartzia 1. mailako beterranoetan eta Alejandro Altuna 2. mailako beterranoetan. Duatloian, Roberto

Gartzia 7. sailkatu zen Vasco-Navarro zirkuitoan.



Alejandro Altuna.

Gabonetako minitorneoa Astelenan

ZAPATUAN HASITA, DOMEKAN AMAITUKO DA GABONETARRAKO ASPE ENPRESAK antolatutako minitorneoa. Hilaren 25ean Titínek eta Beroizek osatutako bikoteak aurre egingo dio Aritz Lasak eta Barriolak osatutakoari. Egun horretan partidua irabazten duen bikoteak torneoaren finala jokatu du hurrengo eguenean, hilaren 26an, Irujo eta Merino II.aren kontra. Jaialdi bietan izango da buruz-burukorik ere: etzi, Merino eta Cecilioren artekoa; eta, etzidamu, Retegi Bi eta Idoateren artekoa.

Gaur hasten da jubenil mailako Gipuzkoako xake txapelketa

JULEN GARRO ETA MIKEL BAENA IZANGO DIRA HERRIKO ORDEZKARIAK Donostian jokatu den txapelketa horretan; hortik irtego dira Euskadiko txapelketan jokatu dutenak ere. Gros Xake Taldeko lokaletan, bestalde, 20 urtetik azpiko 62 jokalarik jardun dute zazpi txandatan jokatu den Gipuzkoako Jaialdian eta, euren artean, Julen Garro Klub Deportiboko xakelariak 3. postuan amaitu du.



Julen Garro.

Eibarko tenis txapelketa hasiko da urtarrilaren 10ean



EIBARKO KIROL PATRONATOAK ANTOLATUTA, TENIS TXAPELKETA ABIATUKO DA urtarrilaren 10ean. Txapelketa 16 urtetik gorako tenislariarentzat da eta izena emateko epea zabalik dago urtarrilaren 7ra arte. Bakarkako txapelketa izango da eta, parte hartzeko, 15 euro ordaindu behar da. Informazio gehiagorako, 615-758420 telefono zenbakira deitu daiteke.



Gaztetxoek Urkora igoera prestatzen


KLUB DEPORTIBOKO MENDI TALDEAREN GAZTETXOAK XOXOTEKO ATERPE TXERA JOAN ZIREN asteburuan. Gehienak, hamaiketako egin eta gero, beheruntz abiatu ziren, baina bederatzi lagun lotan ere geratu ziren

aterpean. Eguraldi bikaina aprobetxatuz, elurrarekin ere asko gozatu zuten, bereziki haurrek. Urtarrilaren 1ean, Urkora igoera dela-eta, 12.00-etan zita egin dute Ixuan gelditu eta haurrekin Urkora punta egiteko.

Atleta beteranoak nagusi Olabeko Bolunburu Memorialean

JOSE ANTONIO BLANCO (TXINDOKI) ETA ROSI TALAVERA (BIDASOA) IZEN ETA IBILBIDE HANDIKO atletak irabazi zituzten Bolunburu Memorialeko proba nagusiak domeka goizean. Podiuma osatu zuten eurekin Sergio García eta Mohammed El Guarrak-gizonezkoetan eta Itxaso Escondrillasek eta Nerea Lafuente emakumezkoetan. Juniorretan Ander Jaregi eta Sara Insausti izan ziren garaileak eta, beheko mailtako irabazleen artean, Julen Terán eibartarra nagusitu zen alebinetan.

Izan ziren postu onak lortu zituzten beste eibartar batzuk ere: mutilen artean, kadeteetan, Txomin Osoro 3.a izan zen eta Ander Gisasola 6.a; jubeniletan, Ibrahim El Moussaouik 7. amaitu zuen; juniorretan, Asier Selas 4. sailkatu zen. Eta nesken artean: Aitziber Urkiola 4.a eta Oihane Sarasketa 6.a izan ziren seniorretan; eta Izaro Fernández 7.a kadete mailan. 200 atletatik gora izan ziren probetan eta, hotzari aurre eginez, zale-tuen erantzuna ere nabarmentzekoa izan zen.




Deportreko atletak beroketa saioan.

Denboraldiko lehen eski irteera

DAGOENEO ZABALIK DAGO BERTAN IZENA EMATEKO EPEA. Urtarrileko 8/9ko asteburuan egingo da eta 60 euroko prezioa du helduen eta lagundutako umeen kasuan (joan-etorria, autobusa eta pentsio erdiko alojamendua Canfranc-en barne) eta 70ekoa eskoletako 10-13 urte artekoen kasuan (joan-etorria, autobusa eta pentsio erdiko alojamendua Villanuan, egun biko forfait-a eta material alokairua barne).

Helduek eta lagundutako umeez iraupen eskia edo eski alpinoa egin aukeratu dezakete; eskoletako umeez bakarrik iraupenekoa egin ahal izango dute. Irteera aprobe-txatu nahi duten guztiek, Klub Deportiboko bulegotik pasa daitezke, martitzen eta egue-netan (19.30-20.30).



Julia Agirre gidaria onenen artean


BIKAIN ERANTZUN ZUEN DO-MEKAN OLABERRIAN JOKA-TUTAKO ERRESISTENTZIA

probetan, Escudería Eibarko ordezkari gazteenak (13 urte) bikain jardun zuen eta, sailkapen orokorrean eskuratutako 3. postuarekin eta bere mailako lehengoarekin, hurrengo denboraldian jardungo duen maila berriari neurria hartu diola erakutsi zuen. 125cc-ko ibilgailuarekin entrenamendu saio bi bakarrik eginda, arazo mekanikoei aurre eginez eta istripu ikusgarri bi izan eta gero, Agirrek aurrera jo zuen, bere taldekidearen laguntzarik gabe. Ordu bitik gorako lasterketa egin eta gero, lasterketa erritmora 200 kilometrotik gorako jardunaldian, KZ2 maila horretako esperientzia handiko pilotoei egin zien aurre, aurpegia galdu barik. Ikustekoa, benetan, bere lana!



Artxiboko irudia.

Iker Narbaiza pilotaria finalean



KLUB DEPORTIBOKO ORDEZKARIAK FINALA JOKATUKO DU Deba-Goierri-Tolosa torneoko lau koadroaren barruko txapelketan. Finalerdian set biak (8-7 eta 8-6) irabazi zizkion Ziortza taldeko ordezkariari Zizurkilgo frontoian. Gaur hirugarren partidua jokatuko du, Bidegoianen, Tolosako Aurrera Zaiatz-3 taldeko ordezkariaren kontra.

Kalamuako judokak bete-betean

OHIKOA DENEZ, HORRELA AMAITU DUTE URTEA KALAMUAKO KIROLARIEK. Horrela, aurreko egunean Olentzero trofeoa jokatu zen klubaren instalazioetan, Kalamuako eta Soraluezko Ukaldi klubeko ordezkarien parte hartzearekin. Adinaren arabera bost mailatan jardun dute, eibartarrak guztira 26 domina irabaziz. Zapatuan, bestalde, Logroñora joan zen klubeko ordezkari bat eta Aitor Villalbak (23 urtetik azpikoak), eta Adrian Riañok eta Nekane Muguruzak (infantilak) autonomiatako txapelak jantzi zituzten.

Itzi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

etxolajatetxea@hotmail.com
Erreserbak: 943-207019
Txirio kale, 1

etxola
JATETXEA

Eguneko menua / Karta / Pintxoak
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak




Thompsonentzat oparia

Edward Herbert Thompson arkeologoa **Chichen Itza** kokatzen den ha-zienda eskuratu zuen 1894ean. Pape-retain ez da azaltzen zenbatengatik erosi zikion lurra Juan Sosari, baina Munduko Zazpi Mirari Berri honetan lan egiten duen gidetarikoa baten berbetan 50 estatu batueta dolarrengatik saldu zen (75 dolarrengatik diote beste batzuek). Planetako txokorik zirrargari, misteriotsu eta harrigarrietariko bat oparitua izan zen ia-ia.

Izan ere, zibilizazio maiaren ikur honek igortzen duen magia ezin da neurtu, are gutxiago dolarretan. Matematikan, astronomian eta beste hainbat gaitan jakintsuak ziren maiak (nolako ezagutza izango genuke Fray Diego de Landak maien liburutegiak erretzeko agindua emango ez balu?), eta oraindik kontu berriak deszifratzen dihardute espezialistek.

Baina Chichen Itzaren kokalekua erakar-gerria da dirua egin nahi dutenentzat. **Yucatan** penintsulan kokatuta, Karibe itsasoak inguratuta, negozio oparoa egiteko aukera handia dago bertan. Thompson hil eta lurra oinordekoen eskuetan geratu ziren. Iaz, azkenean, Yucatan gobernuak Hans Jürgen Thies Barbachano enpresariari 220 milioi peso mexikarrengatik erosi zizkion lurra (13 milioi euro, abal batek 8 milioi peso balio zituela esan arren, 500.000 euro).



Hiru mende egon da Chichen Itza esku pribatuetan. Atzerritarren esku pribatuetan denbora askoan. Berdin gertatzen da **Erribera Maiarrean**. Hotelak, jatetxeak eta turismoarekin zerikusia duten negozio gehienak atzerriko kapitalarekin sortuak izan dira. Mexikarrak (enpresariak badaude ere) negozio horien lan eskuak dira, euren herrian atzerritarren agindupean (eta esker onez egon behar


gainera, lana baitaukate). Lana eta soldata (eskasak kasu askotan) mexikar hauentzat, dirua (barra-barra sarritan) atzerritarrentzat.

'Dos Ojos' edo 'Cristal' bezalako zenoteek, **Tulum** eta **Cobako** hondar maiek, turquesa kolorez bustitako hondartza txuriek, gastronomia mexikar aberats eta zaporetsuak, **Isla Mujeres** igortzen duen irla karibearraren xarma eta edertasunak, **Holboxen** biltzen diren bale-marrazoek, **Playa del Carmen**eko gau eta egunek, eta, nola ez, mexikarrek, urte osoan zehar milaka ez, milioka turista erakartzen dituzte inguru haietara. Gehienak opporraldiak pasatzera joanik, uzten duten diru kopurua ikaragarri handia da. Ikusi behar-ko litzateke Kukulkanen oinordekoentzat geratzen den diru kopurua zenbatekoa den.

Mexikoko beste lekuetatik Erribera Maiarre- ra bizitzera joandakoek turismoaren aurrean maiek duten pasibitatea salatzen dute, euren- gatik izango balitz lurralde hori turismoaren- zat esplotatu gabe egongo zela diotelarik. Egia edo gezurra izan, gobernu mexikarrak negozioa aspaldi egin du lurral- de horretan, eta bertan mugit- zen dirua norbaiten es- ku ez badago, hori maiene- an da. Oraingoan ez da Ed- ward H. Thompson, baina historia errepikatu egin da.



Cozumel



Isla Mujeres



Gabonetan gozatu EIBAR-en erosten

BARRAKAK DOAN

Txaltxa Zelai - Anbulatorioa - Urkizu











EIBARREKO UDALA

ERIKO JAURLANITZA
ERIKO ERANTZUNEN
KONDEGIETAN



GOBIERNO VASCO
ERIKO ERANTZUNEN
KONDEGIETAN



Gabonetako kontzertua domekan

USARTZA TXISTULARI TALDEAK ETA SOSTOA ABESBATZAK DOMEKAN KONZERTU BEREZIA EMANGO DUTE ELKARRERKIN, Gabonak direla eta. 12.30etan hasiko da Elena Pérez-ek zuzenduko duen kontzertua, udaletxe-ko arkupeetan eta honako egitarauari jarraituko diote:

“Eguberriko zazpi kanta” (J. I. Ansorena), “Bi bilantziko” (Mold: J. I. Ansorena), “Gabongo Ilunabarra” (Pello Zabala, mold: J. I. Ansorena), “Alborada Navideña” (Luis Urteaga), “Ai au gauaren zoragarria” (Pedro Pascual Barturen), “Din-Dan-Don” (Lord Pierport), “Haurtxo Maite” (Franz Xaver, mold: J. I. Ansorena), “Mesias Sarritan” (Bartolomé Ercilla) eta “Mendigoizaleak” (Aita Olazaran).



Antzezlan eta askaria


ARMAGINTZAREN MUSEOAK UME-ENDAKO JARDUNALDI BEREZIA PRESTATU DU datorren asterako, eguaztenerako, ikasleek oporrak dituztela aprobetxatuta. 17.00etatik aurrera, “Musika tresnen fabrika” antzezlan eskainiko du Sointek taldeak museoan bertan (Portalean, 5. solairuan). Eta antzezlan amaitzean, gainera, “merendola” emango diete joatera animatzen diren ume guztiei. Antzezlan ume txikientzat, 10 urtera artekoentzat pentsatutakoa da

Ima Elorza, Imanol bere aitarekin, hau ere artista.



Nabarraldekoak Gipuzkoaren jatorriaz

NABARRALDE ELKARTEAK ABENDUAN ESKAINTZEN DIHARDUEN HITZALDI-ZIKLOA BIRIBILTZEKO, gaur arratsaldean, 19.30etan Beñi Agirrerekin mahai-ingurua hasiko da Arrate Kultur Elkartearen, baina aurretik “Gipuzkoaren jatorria” elkarteak berak argitara eman duen DVD berriaren proiektzioa eskainiko dute. Ruben Marcillak zuzendutako lan horretan hainbat historialarik hartu dute parte (Idoia Arrieta, Iñaki Sagredo, José Luis Orella Unzué eta Beñi Agirre bera) eta Eibarri buruzko aipamenen bat jasotzen du.



Ima Elorzaren eskulturak Untzagan

APIRILEAN AITAREKIN BATERA EGIN ZUEN ERAKUSKETAREKIN ANIMATUTA, Ima Elorzak oraingoan bakarka erakutsiko ditu bere arte-lanak Untzagako jubilatuen etxeak egunotan martxan duen erakusketan. Urtarrilaren 9ra arte egongo da erakusketa ikusteko aukera, astelehenetik barixakura 19.15etatik 21.15etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12.00etatik 14.00etara (abendua 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da).

Julen Zabaletaren marrazkiak Portalean

AURREKO ASTEAN ZABALDU ZUTEN JULEN ZABALETAREN MARRAZKIEKIN osatutako bildumaren erakusketa Portalean, gehienbat gerra aurreko Eibarko erakinek eskainitako laminekin. Urtarrilaren 9ra arte bisitatze-ko moduan izango den erakusketa ohiko ordutegian zabalduko ditu ateak, martitzetik domekara 18.30etatik 20.30etara (gogoan izan Portalea itxita egongo dela abenduaren 24, 25, 26 eta 31n eta urtarrilaren 1, 2 eta 6an).



Poesia irakurraldia Karrikan

KARRIKA TABERNAK GAUR ARRATSALDEAN, 19.30etatik aurrera “Ez dok armairu, ez don armairu!” izenburuari jarraituko dion gay-les poesia irakurraldia hartuko du. Besteak beste, Rikardo Arregi, Mikel Ayerbe, Ibon Egaña, Angel Erro, Kattalin Miner eta Juanjo Olsagarreren testuak irakurriko dituzte.

Abontzatomasak giro paregabean

DOMEKAN, ABONTZAKO ITTURRIXA ELKARTEAK ANTOLATUTA, PRIMERAKO GIROAN EMAN ZUTEN GOIZA Egigurentarreneko parke ingurura bildutakoek. Termometroari begiratuta, kalerako baino etxerako giroa bazegoen ere, antolatzaileek prestatu eta banatu zituzten 500 txistorra pintxoek eta horiei laguntzen edandako salda eta bestelakoek jaiaren parte hartu zutenen barruak ondo baino hobeto epeldu zituzten. Umeak, bestalde, eurentako antolatutako jolas eta bestelakoetan ederto ibili ziran. Jaiaren amaieran zozketa egin zuten eta irabazleek honezkero saria jaso dute: lehenengo saria Arkaitz Iparragirrek eraman zuen (2.465 zenbakia) eta bigarrena, berriaz, M^a Jose Agirregabirriak (7.679 zenbakia).




Mireia Arrateren hitzaldia

MARTITZENEAN, HILAREN 28-AN, MIREIA ARRATE IDAZLE EIBARTARRAK HITZALDIA ESKAINIKO DU PORTALEAN, 19.00etatik aurrera. Eibarren 1946an jaio zen idazlea Zuzenbidean lizentziatua da Bartzelonako Unibertsitatean eta 1970az geroztik han bizi da, Euskal Herrira tarteka etortzen den arren. Arratek "El año de los mil cafés" (Edebé, 2010) bere lehenengo eleberria eman du argitara aurrean eta horren inguruan berba egingo du datorren asteko saioan. Eibartarrak ipuin eta narrazio laburrak idatzi izan ditu aurretik eta "1^a instancia" gaur egun desagertuta dagoen aldizkariaren erredakzioan parte hartu zuen bere sasoiaren.

Txistorra Eguneko sari nagusia banatuta

TXIRRINDULARIEN ELKARTEAK ANTOLATUTAKO TXISTORRA EGUNEAN HAINBAT SARI BANATZEKO ZOZKETA egin zen eta sari nagusia, 300 euroko balioa duen erosketa-txartela, astelehenean eman zioten argazkian ikus dezakezuen Maite Suinaga irabazleari. Bigarren sariak Norberto Ojanguren, José Arizmendi eta Amaia Trebiñok eraman dituzte. Eta, horrez gain, beste 90 sari (hirugarrenak edo "farol gorriak") banatu dituzte Txirrindularien Elkarteak. Sari horiek guztiak elkartearen bulegoan banatzen jo-



an dira, zenbaki irabazleak zituztenak bertatik pasatzen joan ahala. Txirrindularien Elkarteak sariren bat irabazi duten guztiak zoriondu nahi ditu eta, bide batez, txirrindularitza sasoia agurtzeko antolatzen duten jaialdian parte hartu zuen jende guztiari eta jaiaren antolatzea posible egin duten babesleei eskerrak eman nahi dizkie.

laburrak

GABONAK ERROTA GAZTELEKUAN

Gabonetako hamabostaldirako egitarau berezia prestatu dute Errota gaztelekuak. 16.30etatik 20.30etara zabalduko dute Karmen kaleko gaztelekuak eta, besteak beste, honakoetan parte hartzeko aukera izango dute nahi dutenek: karterak, mugikorrendako zorroak, giltzariak, agendak eta bestelakoekin gabonetako opariak egiteko tailerra (abenduak 23 eta urtarrilak 5), abenturazko filme baten emanaldia (abenduak 26), ping-pong txapelketa (abenduak 28), filme baten (komedia) emanaldia (urtarrilak 2), futbol txapelketa (urtarrilak 3), txiste txapelketa (urtarrilak 6) eta merendola eta lagun ezkutua (urtarrilak 6).

R. GALDÓS-EN IDAZLANAK SAREAN

Eibarko idazleen lanak, baita Eibarri buruz idatzi dutenenak ere, poliki-poliki interneten sartzen joan direla adierazi dute Ego Ibarra batzordeko arduradunek. Oraingo honetan, besteak beste, Romualdo Galdós-en "Jesus aurtxoaren lenengo itzaldia" izeneko olerkiak, 1952an kaleratutako lana, "Mikel Garicoits" liburuaren berrargitalpena lapurteraz eta berak "ezertxo ere aldatu-barik" bizkaieraz jarria (1923an kaleratutakoa) eta "Dabiden eres-abestiak. Latekeraz, gerkeraz eta iberkeraz artu... eta euskeraz ipini-takoak" (1936an kaleratu ziren tomo biak) sarean daude jada (www.egoibarra.com helbidean).

ARATOSTEAK 2011 KARTEL LEHIAKETA

Udalak datorren urteko Aratosteetarako kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du eta parte hartu nahi dutenek urtarrilaren 28an, 14.00ak baino lehen entregatu beharko diruzte lanak Pegoran. Saria 600 eurokoa izango da.

Asier Serranoren**kolaborazioa****Gurpildun aulkiak**

Argia ikusi duen azken liburuaren aurkezpenean ohartu nintzen, akaso, nire objektuekiko beste obsesio eri bat izan zitekeela. Editoreak bere ondoan egin zidan lekua, eta mahai gaineko mikrofonoak disimulurik gabe amiñi bat estaliz belarrira xuxurlatu zidan: "Agian nahiago duk gurpildun aulki batean eserita egin". Kontuari jaramonik egiteke ekin nion aurkezpenari. Despeditzeko tenorea iristean argitu zidan editoreak gurpildun aulkiarena ironiaz: "Hire bi nobelatan gurpildun aulki batera kondenatu dituk bi pertsonaia, kabroi sadikoa haiz... horregatik esan diat".

Etixerako autobusean, egunkari abandonatu batek markatu zidan nire eserlekua. Iragarki laburren sailean balizko obsesioa izkiriatua: "Bigarren eskuko gurpildun aulkia salgai". Nik kondenaren objektua askatasunaren obsesio bilakatzeko formula aurkitu nuen. Erantzuna zuri dagokizu irakurle: Zergatik saltzen du norbaitek jada behar ez duen gurpildun aulkia?

musika**Mendizabal/Furundarena
Arnasak**

Arnasak, oso modu zotil bezain eder eta adierazkorrean, bi tresna eta tresnajoleren arteko uztarketa esanguratsuaren isla dugu. Aitor Furundarena eta Garikoitz Mendizabalek, eskusoinua eta txistua elkarren artean osatuz, maila handiko konposaketa alaiak eta dantzagarriak aurkeztuko dizkigute, aire zabalean sena herrikoierakargarria eta unibertetsala barreiatzen dutelarik.

**Olatz Zugasti
Gau hotzengan ere**


Lan berri honen bidez bizipe-nak komunikatzen ditu Zugastik, hurbiletik xuxurlaturik, sentimendu xamurrak kontatzen diren moduan. Horrela, bere barne baratze emankorra eta fantastikoa ez ezik, aparteko nortasun zigilua daraman folklore ideia errodun garaikidea ere aurkezten digu. Fintasun izugarriarekin margotzen ditu Olatzen paisaiak.

**Patxi Zubizarreta
Joan**

Uztail amaiera da Lisboan, eta Mariok dei bat jaso du gauerdian. Emakume baten ahotsa da, frantsesez, Joao anaia gaztea Santa Grazin larri dagoela jakinarazi diona. Eta Mariok zer egin erabaki beharko du: joan, ez joan, edo... Joserra Senperena piano jotzaileak, liburuaren atal bakoitza gogoan, bost fado grabatu eta DVD bat osatu du. Liburuarekin batera doa.

**Arantxa Urretabizkaia
3 Mariak**

Kalera irten, egunero irteten ginen, are alargundu osteko neguan eta udaberri euritsu hartan. Gorrik buru belarri sinesten du onuragarria dela kalera irtetea, onuragarri ibiltzea eta, era berean, jendea ikustea, gure etxean egunero bisitaren bat baguenen ere. Hori bai, protesta egiten zuen euria zen bakoitzean.


**literatura**

laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, NAIA, etzi hamabi urte egingo dozuzelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LIBE, martitzenian zazpi urte egin zenduazena. Patxito bat famelixaren partez.



Zorionak, IRATI (10 urte) eta MARKEL (7), zuon urtebetetzietan. Famelixaren partez.

HILDAKOAK

- Antimo Atxurra Alegria. 74 urte. 2010-XII-15.
- Carmen Iraola Enbeita. 85 urte. 2010-XII-15.
- Eduardo Idiakez Zabala. 72 urte. 2010-XII-15.
- Alberto Alzola Narbaiza. 89 urte. 2010-XII-16.
- Esther Novoa Breña. 74 urte. 2010-XII-17.
- Ines Esparza Azanza. 86 urte. 2010-XII-17.
- Jose Bengoetxea García. 74 urte. 2010-XII-18.
- Angel Laguna Martínez. 65 urte. 2010-XII-18.
- Felisa Arregi Izagirre. 88 urte. 2010-XII-19.
- Maria Osa Unamuno. 89 urte. 2010-XII-20.
- Andres Laburu Bilbao. 79 urte. 2010-XII-20.

JAIOTAKOAK

- Ane Sola Agirreazaldegia. 2010-XII-15.
- Izaro Martínez Guillén. 2010-XII-15.
- Irane Dosantos Tejado. 2010-XII-16.

23an: 20.30
24an: 17.00
25ean: 19.45/22.30
26an: 17.00/19.30
23an: 20.30

"Bon Appétit"

Zuzendaria: David Pinillos
 Aktoreak: Unax Ugalde, Nora Tschirner, Guilio Berruti, Herbert Knaup



Daniel Zurich-eko Thomas Wackerlen jatetxe ezagunean lanean diharduen chef-a da. Hanna jatetxe bereko somelier-arekin duen harremana gero eta sakonagoa izango da eta horrek arrakasta profesionalaren edo maite duenaren alde egitera behartuko du.

23an: 20.30
24an: 17.00
25ean: 19.45/22.30
26an: 17.00/19.30
23an: 20.30

"Los otros dos"

Zuzendaria: Adam McKay
 Aktoreak: Derek Jeter, Eva Mendes, Samuel L. Jackson, Dwayne Johnson



Gamble eta Hoitz agenteak, poliziak badira ere, Danson eta Higsmithe superagenteen gerizpean bizi dira. Baina, gauzak gaiztotzen hasten direnean New Yorkeko kaleetan, bikoteak bere burua behartuta ikusiko du komisaldegiko despatxua lagatzera.

23an: 20.30
24an: 17.00
25ean: 19.45/22.30
26an: 17.00/19.30
23an: 20.30

"Los viajes de Gulliver" 3D

Zuzendaria: Rob Letterman
 Aktoreak: Jack Black, Emily Blunt, Billy Connolly, Jason Segel, Amanda Peet



Gulliverrek New Yorkeko egunkari bat banatzen du, bidaietako editorea izan nahi badu ere. Amets batek Bermudetako triangelura eramango du; baina, ekaitz batek bultzatuta, bere gorputza liliputiensenen uhartean amaituko du. Hor hasiko da abentura.



horoskopoa

ARIES

Ahalegindu zaitetz eta samurragoa izan. Aldamenekoez eskertuko dute, azken aldian zakarregia zaude-eta, batez ere eurekin.

TAURUS

Aspaldiko gorrotoek gaur egungo harremanetan oztopo egiten dizute eta hori ez da sana. Kontu zaharrak dira, ahaztu beharrekoak.

GEMINI

Zure atzetik dabilen horren besoetan eroriko zara uste baino lehen. Orain gogor-gogor zabilta, baina azkenean bigunduko zara.

CANCER

Datozen egunotan estresa izango duzu etsairik nagusiena. Badakit ez dela erraza gauzak lasaiago hartzea, baina ahalegindu zaitetz.

LEO

Lasaaaaaii!! Egunotan dituzun tristura eta nekea laster pasako zaizkizu. Besteek baino denbora gehiago beharko duzu, baina eutsi!

VIRGO

Asteburu bikaina duzu aurretik. Hainbeste mimoz antolatutako "hori" borobil irtengo zaizu, ez du atzera bueltarik. Egon lasai.

LIBRA

Urteak amaitzen dihardu: balantzea egiteko ordua da. Ahaztu onak izan ez direnak eta heldu gogor merezi izan duten gauza horiei.

SCORPIUS

Hori da hori nerbioa! Ezin zara geldi egon. Guztiari baietz esan behar! Badakizu zer egin: erlaxatu!! Zure burua gehiago zaindu ezazu.

SAGITTARIUS

Non arraio bizi zara? Jaitsi lurrera, gauza mordoak galtzen ari zara-eta. Extralurtarra dirudizu; itxuraz ere hobetuko bazenu... Ah, ze piura...

CAPRICORNIUS

Eskaini denbora gehiago aisialdiari. Lanak irentsi egingo zaitu eta hori ez da txantxa. Badirudi lanerako bakarrik bizi zarela. Aldatu!

AQUARIUS

Agenda topera duzu, baina benetan uste duzu apuntatuta dituzun gauza guztiek merezi dutela? Egin benetan nahi duzuna.

PISCIS

Espero duzun oparia jasoko baduzu ere, poztasun handiena aspaldian ikusi ez duzun lagun batek emango dizu. Zorionak!

Eguena 23

ERROTA GAZTELEKUA

17.00.- Gabonetako opariak birziklatutako materialak erabilia (karterak, mugikorrendako zorroak, giltzarriak, agendak...). Errota gaztelekuan.

HITZALDIA

19.30.- "Gipuzkoaren jatorria" DVD berriaren proiektzioa (Eibar aipatzen da) eta mahai-ingurua, Beñi Agirrerekin. Nabarralde Elkarteak antolatuta. Arrate Kultur Elkarteak.

POESIA IRAKURRALDIA

19.30.- "Ez dok armairu, ez don armairu!" gay-les poesia irakurraldia (Rikardo Arregi, Mikel Ayerbe, Ibon Egaña, Angel Erro, Kattalin Miner eta Juanjo Olasagarre). Karrika tabernan.

ARTISAU AZOKA

20.00.- Kaleetan Kantuz-ekoan emanaldia. Gabonetako Artisan Azokan (Eibarko Bizikleta Plazan).

ORDUTEGI BEREZIXAK

Gabonak direla eta, udal instalazioek ordutegi berezian zabalduko dituzte eta egun batzuetan itxita egongo dira: **Ipurua kiroldegia** bihar (hilak 24) 09.00etatik 13.00etara zabalduko dute eta **Unbe eta Orbeako kirolgunek** ere bakarrik goizez zabalduko dituzte, 09.00etatik 14.00etara. Hilaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo dira. Bestalde, **Portalea** itxita egongo da abenduaren 24, 25, 26 eta 31n eta urtarrilaren 1, 2 eta 6an.

Barixakua 24

OLENTZERO

17.00.- Opari-banaketa, udaletxean.
18.00.- Kalejira, Pantxika, Kaleetan Kantuz abesbatza eta J. B. Gisasola Musika Eskolako soinu-ikasleen eta trikitilarien laguntzaz. Ibilbidea: Untzaga, Calbetón, Bidebarrieta, Urkizu, Errebal, Julian Etxebarria, Toribio Etxebarria eta Untzaga.

Domeka 26

ERRESKATE ITXURA

10.00.- Ertzantzaren erreskate-taldekoez pare bat alegiazko salbamentu egingo dituzte. Asua Erreka inguruan.

GABONETAKO KONTZERTUA

12.30.- Usartza Txistulari Bandaren kontzertua, Sostoa abesbatzarekin batera. Udaletxeko arkupeetan.

ARTISAU AZOKA

17.00.- Umeentzat eskulan tailerrak. (Eibarko Bizikleta Plazan).

ERROTA GAZTELEKUA

17.00.- Abenturazko filmaren emanaldia. Errota gaztelekuan.

Martitzena 28

ARTISAU AZOKA

Arratsaldean.- Rap ikuskizuna. Gabonetako Artisan Azokan (Eibarko Bizikleta Plazan).



HITZALDIA

19.00.- "El año de los mil cafés" eleberraren inguruko hitzaldia, Mireia Arrate idazlearen eskutik. Portalean.

Eguaztena 29

ANTZERKIA ETA ASKARIA

17.00.- Musika Tresnen Fabrika, Sointek taldearen eskutik (10 urte arteko umeentzat). Armagintzaren Museoa.

SUDOKUA

		2				7		
5				2	7	8		6
8	4				2	5		
				4	6			1
	3			9	8	2		4
	7			1				
		4					5	

DENBORAPASAK

4	8	3	7	2	5	1	9	6
5	6	9	4	3	1	7	8	2
7	1	2	6	9	8	3	4	5
3	2	1	8	7	6	9	5	4
9	7	4	1	5	2	6	3	8
6	5	8	9	4	3	2	1	7
2	3	7	5	0	8	4	6	1
6	9	8	2	1	4	5	7	3
1	4	5	3	6	7	8	2	9

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

- Abenduaren 23ra arte
SAIOA CABAÑAS argazkilaria "Gauilunak" erakusketa. *Karrika tabernan.*
- Abenduaren 31ra arte
NEKANE LAZKANOren "Roma G9" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- LUIS LARRAKOETXEA**ren argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- Urtarrilaren 9ra arte
EIBARKO KLUB DEPORTIBOko Argazki Taldekoen erakusketa. *Portalean.*
- JULEN ZABALETA**ren "Gerra aurreko Eibar" marrazki erakusketa. *Portalean.*
- Urtarrilaren 10era arte
MIKEL OROZKOren "Berlin in Furs" argazki erakusketa. *Taberna de los Mundos-en (Bilbo).*
- Otsailaren 28ra arte
FERNANDO BEORLEGIren "Gogoaren pintzelkada garratzak" erakusketa. Lizarrako Gustavo de Maeztu museoa (martitzenetik zapatara 11.00-13.00 eta 17.00-19.00; jai-egunetan, 11.00-19.00).



farmaziak

- 23, eguena**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 24, barixakua**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 25, zapatua**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 26, domeka**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 27, astelehena**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 28, martitzena**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 29, eguaztena**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 30, eguena**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)



lehiaketak

- **Toribio Etxebarria Sariak 2010.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 24ra arte*, www.bicberrilan.com helbidean.
- **"Aratosteak 2011 Eibarren" kartela.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 28ra arte*, Pegoran.
- **Narruzko Zezen Sariak.**
(Antzez Artikulo eta Gidoientzako)
Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 28ra arte*, Hezkuntza Esparruan (943254465 telefono zenbakian).

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.2. Salgai

– Pisia salgai Juan Antonio Mogen. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Aukera ezin hobea. Tel. 659-508607.

1.2. Errentan

– Pisia alokagai Amañan. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua. Tel. 646-484230. Aitor.

1.3. Konpartitzeko

– Logela behar da konpartitzeko. Tel. 688-819475.

2. Motorra

2.1. Salgai

– 20 tonatoko Scania markako kamioia salgai lanarekin. Gaitasun profesionala behar da. Tel. 685-724273.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Estetika negozioa traspasatzen da. Lanean hasteko moduan. Tel. 657-793584.
– Garaje itxia salgai Txomon. 36.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai San Pio X-ean. Tel. 650-016440.
– Eibarko erdialdean 70 m²ko loka- la alokagai. Komuna eta barrarekin. 20 urtetik gorako gazteentzako modukoa. Tel. 679-425467.
– Asua-Errekan garajea alokagai. Tel. 678-436136.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko: tabernak, pegorak etb. Orduka. Tel. 628-014327.
– Neska gaztea eskaintzen da umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 685-765340.
– Neska gaztea eskaintzen da umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 663-682150.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da arratsalde eta asteburuetan nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 636-383471.

– Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 676-035738.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 689-617818.

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan eta jaiegunetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 616-397348.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia. Tel. 665-301550.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Urte biko esperientzia. Tel. 663-682150.

– Emakumea eskaintzen da gauez nagusiak zaintzeko. Tel. 605-129495.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Gauez ere bai. Tel. 630-365137.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-005760.

– Neska eskaintzen da orduka lan egiteko, pegorak garbitzeko eta interna moduan. Tel. 646-464300.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta interna moduan. Tel. 690-025810.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 637-966749.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 686-234612.

– Neska eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 699-706869.

– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo garbitzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 666-259497 eta 686-149562.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da kamarrera edo sukalde-laguntzaile moduan eta etxeko lanetarako. Autoarekin. Tel. 686-149562 eta 650-218238.

– Neska euskalduna eskaintzen da gabonetako oporretan umeak zaintzeko. Tel. 685-778554.

– Neska eskaintzen da orduka umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko etabar. Tel. 679-910991.

– Neska eskaintzen da asteburuetan umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-081763. Maite.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 630-410724. Dora.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-972690.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko (orduka) eta umeak zaintzeko. Tel. 680-463892.

4.2. Langile bila

– Estetizista eta masajista den pertsona behar da Eibarko estetika zentro batean. Tel. 943-200345.

– Estetizista behar da Elgoibarko estetika zentro baterako. Tel. 943-531636.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Mutil gaztea eskaintzen da umei negeleseko klase partikularrak emateko umei. Tel. 685-765340.

– Txakur-hezitzailea eskaintzen da oinarriko obediencia, portaera aldaketak etabarrek klaseak emateko. Tel. 645-724397.

– Ingeniaritza ikaslea eskaintzen da klase partikularrak emateko. LH, DBH eta Batxilergoa. Tel. 628-665220.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bizikleta bi salgai 6-10 urte bitartekoentzat. Biak 100 euro. Deitu 21.00etatik aurrera. Tel. 943-204238. Itziar.

– Solariuma salgai (etzandakoa). 22 lanparekin eta solariuma bihurtzen den maleta itxurakoarekin. Tel. 658-717754.

– Lur saila salgai. 21.000 m²: 15.000 Maxpen eta 6.000 Kalamuan. 60.000 euro. Negozia-garriak. Tel. 965-876118 edo 649-445104.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Astelehenean, hilaren 13an, laneko karretilla laranja galdu zen Txontan. Eskertuko da. Tel. 605-708637.


– Emakumearen urrezko pultsera galdu da San Andres egunean. Balio sentimentalak. Eskertuko da. Tel. 943-207785.

6.4. Bestelakoak

– Eibarko lagun bik lagunak nahi dituzte irtetzeko. Tel. 669-911573 eta 658-732727.

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**


**AUTO
ESCUELA**

CURSOS INTENSIVOS

**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK

**San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR**



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON

FELICIDADES Y PRÓSPERO AÑO NUEVO

MERRY CHRISTMAS AND HAPPY NEW YEAR

FRÖHE WEIHNACHTEN UND EIN GUTES NEUES JAHR

JOYEUX NOËL ET BONNE ANNÉE

BUON NATALE E FELICE ANNO NUOVO

豬



**INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES**



ALFA[®]

